

NORABIDEA ALDATZEKO GARAIA DA

Orreaga (2009.8.15)

Euskaldunok frankoen aurka lortutako garaipenak, 824. urteko Orreagako hirugarren bataila bezala ezagutua den horretan, oso lagungarriak ziren baldintzak ezarri zituen. Baldintza horiek bultzatu zituzten gure herriko buruzagi nagusiak, ordura arteko antolaketa politikoa, bere maila gorenera eraberritzera, Erreinu bat osatzera, hau da, Estatu independente, bateratu eta burujabe bat eratzera.

Hau zen bide bakarra, haien gizarte antolaketa eta bizimodua babestu, frantziar eta espainiarren asmo inperialistei modu eraginkorrean aurre egin, eta atzerriko uztarritik aske izateko.

Bere erabakitasun sendoak eta trebetasun estrategikoak, erakunde juridiko-politiko subirano bat sortzea eta finkatzea eragin zuen, milaka urtetako zibilizazio baten aterpe eta babes gisa.

Iruñea-Nabarrako Erreinoa izan da, gaur egun garena izatea ahalbidetu digun tresna: bere nortasunaz jabetzen den gizatalde jakin bat izatea, Herri bat izatea, azken finean.

Mendeetan zehar onuragarri izan diren osagai kultural oro barneratzen jakin duen, eta gaur, okupaturik dagoen Herri honek, ez du desagertu nahi. Giza-kultura baten, biziera baten, eta errealitatearen bizipen baten eramaile sentitzen baitu bere burua. Errealitate horrek euskara du funtsa esentzialesko bat.

Nora eza eta euskal kontzientzia politikoaren krisi garai honetan, ustezko asmo onez, Euskal Herriaren sorkuntza proposatu zaigu helburutzat.

Ikuspegi akatsa, eta zuzena ez den aurkezpena dela iruditzen zaigu; inperialismoak gure kontzientzi manipulatuetan txertatu duen gure Historiaren ezjakintasunaren ondorioa. Beharrezkoa da beraz, mendeetako okupazioagatik, erabat hondatuta dagoen arrazonamendu politikoa berreskuratuko duen ahalegin serio zein zorrotza egitea. Horrela zehaztuko dugu, gure estatua askatuko duen estrategia politikoa egoki bat.

Euskal Herria, euskal kultura eta hizkuntzaren komunitatea da, hau da, gure Estatuaren kontzeptu etnikoa. Hala ere, egiten ari garen lan honek helburu politikoa du. Beraz, bere lehen erreferentzia izan behar du, mundu mailan izate politikoa burujabe gisa jardun duen instituzioa: NABARRA.

Nahiz eta gure Herria, kanpoko potentziek okupatuta izan, nabar hiritarrak gara eta horrela jardun eta jokatu behar dugu. Izen horrekin Estatu propio bat eduki dugu, eta estatu horretatik sortu dira gure estatu-erakunde guztiak eta estatu horretara zuzendu behar ditugu gure erreferentzi politikoa guztiak.

Gure berezko Historia eta gure Herriaren zati guztiak batu dituen Estatua gogoratu behar dugu beti. Egun, gure Estatua den hau, inoiz alboratu ez duguna, berraktibatzea da aske izateko modu bakarra.

Nabarra izenak, Herri gisa munduan onartuak izan garen izenak, Estatu historiko independente eta subiranoa esan nahi du. Etsai inperialisten botere totalitario grinak, eta gu birrindu eta asimilazioaren bidez ezabatzeko setakeriak, utziezinak diren zatiak kendu zizkion Nabarrari bere lurraldetik. Eta azkenik, Europako gainontzeko herrien artean zuen garapen ahalmena eta bizi independentea, militarki eta bortizki suntsitzea lortu zuen. Nabarra da, gure gogo eta ardura guztia eskaini behar diogun Estatua.

Gaur egungo erregimen estatutarioa eta etorkizunean inperialistek eskaini diezazkiguketen autonomia edo bestelako erregimenak, ordainezina den kolaborazionisten laguntzarekin, irteerarik gabeko bideak dira. Tranpa horren bidez, ia konturatu gabe, gure Herriaren "herio gozoa" gertatzen ari da.

Gure jendea, politika inperialisten beharren arabera, atzerriko hauteskunde lehietan parte hartzera bultzatzeak (horrela definitzen ditugu 1977. urtetik hona egin diren hauteskundeak), buru askeak eta koloniarrekiko loturarik gabeko buruak sortzeko aukera guztiak hondatzen ditu. Hauteskunde horien funtzioa erregimen totalitarioa funtzionaraztea da, nabar ikuspegitik inongo zilegitasunik ez duten ordezkarien berritzea. Gure herriaren boterea ahultzen dute, erabateko men egite ekintza baten bidez, handiagoa den botere baten aurrean: espainiar zein frantziar legalitatea.

Botere okupatzaileetatik datozen erakundeetan parte hartzeak ez du irtenbide estrategikorik; atzerriko engranaje legal eta parlamentarioan integratzen gaitu, eta lorpen engainagarrien bidez, nazio-ikuspegia desitxuratzen du.

Lorpen errentagarriak dira ekonomikoki, indarrean dagoen sisteman ongi kokaturik daudenentzat, eta atzerriarren nagusitasuna iraunaraztea eta bere behin betiko finkatzea bermatzen dute. Independentziaren itxaropen faltsuak sortzen dituzte. Gure erregionalistek ez dute independentzia inoiz lortu nahi izango, Estatu okupatzaileak eskuordetutako kudeaketa administratibo zati batzuk, nahikotzat jotzen baitituzte.

Halaber, jakin badakigu gaur egun aurkezten diren proposamen sasi-politikoak (KAS alternatiba taktikoa, Gasteizko espainiar legebiltzarrean autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea, udalbiltzak, Lizarra-Garazi, itundutako su-etenak, kontsulta-planak, polo soberanistak...) asmo inozo eta bidera ezinak dira, inorako bidaiak, okupaziotik aterako ez gaituztenak. Ipar estrategikoa galtzea, nabartarren betiko zatiketa, eta etsaiaren harrotasuna besterik ez dute lortzen; azken honek, etorkizunean, gu menperatzen jarraitu ahal izango duelarik.

Gogoeta serioa egin behar dugu, sakonki errotutako inertziak gaindituz, gure pentsaera eta ekintza, lortu nahi dugun helburuari dagokion nazio-estrategiaren beharretara egokituz.

Estatu okupatzaileak ezarritako jokalekuan sortuko diren mugimenduak alboratu egin behar ditugu, antzuak direlako. Horrela, garbiago ikusi ahal izango dugu jarraitu beharreko bidea.

Gure lana, gure borondate politikoaren erroetara bideratu behar dugu, gure legezko Estatu nazionala berraktibatu eta berreraikitzen: Nabar Estatua, hain zuzen ere. Norabide bakar horretan, eraginkorra den helburu bakar horretan lan egitea izango da, euskotar guztiak elkartuko gaituena ororen zeregin batean, eta aske egingo gaituena.